


Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización



Oñatiko Udala

Ayuntamiento de Oñati

2020





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZAPENAK	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko Kontuei buruzko Iritzia	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	10
III.1 Aurrekontua, kontabilitatea eta diru-sarrerak.....	10
III.2 Pertsonala.....	10
III.3 Kontratazioa.....	11
III.4 Transferentziak eta dirulaguntzak	12
III.5 Beste alderdi batzuk	12
IV. FINANTZAREN ANALISIA	14
V. URTEKO KONTUAK	17
V.1 UDALA	17
V.2 SAN MARTIN EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOA	20
V.3 UDAL SOZIETATEAK	21
ERANSKINAK	23
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargarria zion legeria	23
A.2 Aurrekontua eta aldaketak	23
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	24
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak	25
A.5 Pertsonaleko gastuak	26
A.6 Ondasun korronteen eta zerbitzu eta inbertsioen kontratazioa	27
A.7 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	29
A.8 Aurrekontuko zordunak eta pasibo korrontea	31
A.9 Aktibo ez-korrontea	33
A.10 Udal erakunde autonomoak eta sozietate publikoak	33
A.11 Kontratazioaren analisia	35
ALEGAZIOAK	37



ABREVIATURAS	39
I. INTRODUCCIÓN.....	41
II. OPINIÓN	42
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	42
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales.....	42
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	44
III.1 Presupuesto, contabilidad e ingresos	44
III.2 Personal.....	44
III.3 Contratación	45
III.4 Transferencias y subvenciones	46
III.5 Otros aspectos.....	46
IV. ANÁLISIS FINANCIERO.....	48
V. CUENTAS ANUALES	51
V.1 AYUNTAMIENTO	51
V.2 ORGANISMO AUTÓNOMO SAN MARTÍN EGOITZA.....	54
V.3 SOCIEDADES MUNICIPALES.....	55
ANEXOS.....	57
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable.....	57
A.2 Presupuesto y sus modificaciones	57
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	58
A.4 Ingresos por transferencias, subvenciones y patrimoniales	59
A.5 Gastos de personal	60
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios e inversiones	61
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas	63
A.8 Deudores presupuestarios, Pasivo corriente y Endeudamiento.....	65
A.9 Activo no corriente	67
A.10 Organismo Autónomo y sociedades municipales	67
A.11 Análisis de contratación	69
ALEGACIONES	71

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 30a

Vitoria-Gasteiz, 30 de marzo de 2023



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EHJAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia.
EIOZ	Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
GUK	Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.
HHS	Hiri-hondakin solidoa.
JEZ	Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga.
LEI	Lanerako Ezintasun Iragankorra.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
Mankomunitatea	Debagoieneko Mankomunitatea.
UFFF	Udal Finantzaketarako Foru Funtsa.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak agindutakoari eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programari jarraikiz, Oñatiko Udalaren 2020ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkotasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarría den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazio-gai den ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren, bere erakunde autonomoaren eta bere sozietate publikoen balantza, ekonomiaren eta ondarearen emaitzaren kontua, oroitidazkia eta aurrekontuaren likidazioa.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-procedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Oñatiko udalerriak 11.497 biztanle zituen 2020ko urtarrilaren 1ean eta Udalean, udal administrazioak gain, erakunde autonomo bat eta 3 udal sozietate publiko barne hartzen ditu.

- San Martin Egoitza Erakunde Autonomoa: Zaharren egoitza kudeatzea.
- Oñargi S.L. (% 100): udalerrian argindarra banatzeko sarea kudeatzea.
- Oñatiko Ur Jauziak S.A. (% 81): instalazio hidroelektrikoetan eta eguzki-plaketatik energia sortzea.
- Merkaoña S.L.

Udalak honako sozietate hauetan parte hartzen du: Deba Garaiko Bereoneratzeko Hirigintza-Baltzua SA-SURADESA (% 27), Bidebarri Enplegu Zentrua S.L. (% 50), Deba Bailarako Industrialdea S.A. (% 2,59) eta Zubillaga Hiltegia S.L. (% 13,08). Debagoieneko Mankomunitateko kide ere bada -HHSak kudeatzen ditu-, eta Gipuzkoako Ur Kontsortziokoa, GFARI atxikia, eta honi eskualdatu zaizkio udalerrian uraren hornidura eta saneamendu zerbitzua.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Hiri-garraioko zerbitzua zortzi urterako 1,2 milioi euroan esleitu zen eta zerbitzu publikoa kudeatzeko zerbitzu izaera aitortu zitzzion, baina prestazioen izaera kontuan hartuta, zerbitzu-kontratu bat da, eta, beraz, gehienez ere 4 urteko iraupena du (ikus A.11).
2. Aseguru kontratu batek eta zerbitzuetako 3 kontratuk indarraldia 2017 eta 2019 bitartean amaitu zuten arren, egikaritzen jarraitu ziren 2020an, guztira 365.035 euroren kostua izan zuela (ikus A.11):
3. Udalak publikotasun eta lehia printzipioak urratu zituen prozedura ireki bitartez ez zituelako izapidetu 2 zerbitzuren prestazioa, hornidura bat eta 2020an guztira 796.360 euroren kostua izan zuen obra baten egikaritza (ikus A.11).

Epaitegi honen iritzira, Oñatiako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2020ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen Oñatiako Udalaren 2020ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikinean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	AURRE-KONTUKOA	ONDAREKOYA		
	GODG	AKTIBOA	PASIBOA	ONDARE GARBIA
A.3 Uraren kudeaketa integraleko zerb. transf. aurreratuta sartza 2018-2028.....	-	-	693	(693)
A.4 Araotzeko eskoletarako dirulaguntza, sortua.....	105	163	-	163
A.8 Udal-sozietatearen likidazioaren sarrera, emaitzari aplikatzeko dagoena.....	263	263	-	263
A.9 Amortizatu gabeko ibilgetu materialaren azpiegiturak	-	(20.503)	-	(20.503)
UDALA GUZTIRA	368	(20.077)	693	(20.770)

2. Udalaren Kontuek ez dute orube bat deskontaminatzeko obrek eta 2 zabortegi ixteko kostuek eragindako gorabeheren berri ematen. 2018an, enpresa batek orube bat deskontaminatu zuen, eta Udalari eskatu zion ordain ziezaiola. EAEJANek, Kontuak onartu ondoren, gehienez 143.088 euro ordaintzera kondenatu zuen Udala. Deskontaminatu beharreko lurzatia Urrutxuko zabortegi zaharraren zati da, eta zabortegia ixteko obrak Udalak amaitu behar ditu, 2 milioi euroko kostu zenbatetsia duela. Gainera, 2040ra arteko ingurumen-jarraipena egin behar zaio, eta urteko kostua 19.655 eurokoa izan zen 2020an.
3. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak ez du barne hartzen 2020ko abenduaren 31n inbertsio-konpromisorik, guztira 3,2 milioi eurorenak (ikus A.6).



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Pùblicas

Epaitegi honen iritzira, aurreko 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Oñatiko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten entitateen kontuek alderdi esanguratsu guztieta erakusten dute 2020ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2020ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, arauan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jaso dira ekonomia eta finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak ez ezik, baita kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere.

III.1 AURREKONTUA, KONTABILITATEA ETA DIRU-SARRERAK

- Udalbatzak araututako aldez aurreko fiskalizazio mugatuak ez du bere egiaztapenen artean sartzen gastuaren esleipena publikotasunez egin dela egiaztatzea. Araudiak fiskalizazioa mugatzeko aukera ematen du, baina publikotasun eta lehia printzipioak betetzen direla bermatzeko funtsezko izapideak egiaztatzea eskatzen du.
- Fidantzen kontuek eta pasibo korrontearen aurrekontuz kanpoko beste hartzekodun batzuek 2016a baino lehenagoko saldoak dituzte, guztira 82.901 eurorenak, eta haien galddagarritasuna berrikusi beharko litzateke.
- Zabor-bilketaren tasaren hiruhileko likidazioak GUKEk bildu ondoren onartzen dira.

III.2 PERTSONALA

- 2020an indarrean dagoen lanpostu-zerrendak ez du jasotzen lanpostu bakoitzari esleitutako berariazko osagarriaren zenbatekoa. Indarrean dagoen lanpostu-zerrendaren azken 2 aldaketak, 2018an eta 2020an Udalbatzak onartuak, ez ziren argitaratu, eta ez zen justifikatu sortutako lanpostuei esleitutako balorazioa (berdintasun eta garapen ekonomikoko teknikarien 2 lanpostu eta udaltzain-laguntzaile lanpostu 1), eta aldaketa ez zen negoziatu langileen ordezkariekin.
- Udalak ez zion publikotasunik eman 2020ko ordainsari igoera onartu zuen erabakiari.
- Bileretara joateagatiko zinegotziei eman beharreko kalte-ordinak, 15.418 euro 2020an, hileko zenbateko finko bat ezarrita arautu ziren, egiaz bertaratu izanaren arabera kitatu beharrean. Gainera, gai hori arautzen zuen 2019ko Udalbatzaren erabakia ez zen argitaratu, nahitaezkoa den arren.
- 2020ko abenduaren 31n indarrean jarraitzen zuen 2015ean egindako programako bitarteko funtzionarioaren izendapen batek, araudiak izendapen horietarako ezarritako 3 urteko muga gaindituz. Halaber, indarrean jarraitzen zuen Udalak 2019an udal-sozietate bat desegin zenean mugagabe ez-finko gisa aitortutako kontratu bate Udalak egoera horiek erregularizatu beharko lituzke.
- 2018an, 10 lanposturen balorazioa berrikusi zen, eta haien osagarriak handitu ziren, onartutako aldaketak LPZn sartu gabe.
- Udalak ez dizkio Foru Ogasunari aitortzen langileei bizitza aseguruengatik ordaintzen dizkien gauzazko ordainsariak, eta horiek 45.709 euro egin dute.



- Udalak Gipuzkoako beste udal baten lan-poltsak baliatu zituen lanpostu huts bat betetzeko bitarteko langile bat hautatzeko; prozedura hori, baina, Udalak aldez aurretik arautu behar du.
- Zerbitzu bat egiteko 2020an formalizatutako bi lan-kontratuk ez zuten kontratu horien azkentze-data zehazten eta horietako bat indarrean da txosten hau idatzi dugun datan.

III.3 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 4 kontratu nagusiak aztertu ondoren -11,1 milioi euroren esleipenei dagozkienak- honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.11):

- Guztira 8,9 milioi euroan esleitutako 2 kontratutan (1 eta 4 espedienteak) eskainitako hobekuntzak esleipen-irizpide orokor modura baloratu ziren, baloratuko ziren alderdiak edo balorazio bat emateko aplikatu beharreko sistema zehaztu gabe (A1 akatsa).
- 11,2 milioi euroan esleitutako 3 kontraturen pleguetan (1, 2 eta 4 zk. espedienteak) aurreikusitako kontratazio-mahaiaaren osaera ez zetorren bat araudiaren baldintzakin. Bi kasutan, kide hautetsiak kontratazio mahaiaaren % 50 ziren, baina araudiak % 33ra arte mugatzen du haien parte-hartzea. Beste 2tan, kideak karguen arabera izendatzen zituzten, haien titularrak identifikatu gabe. Azken akats hori gertatzen da, baita ere, adituen batzordea izendatzen denean, 2. espedientean. Azken kasu horretan, pleguak ordezkapenak egitea aurreikusten du kontratazio-organoak nahitaezko izenpena egin gabe (A2 akatsa).
- Kontratzailearen profilean argitaratutako informazioa osatu gabe zegoen 10,2 milioi eurotan esleitutako 3 kontratutan (2, 3 eta 4 zk. espedienteak), espedienteak onartzeko ebazenak eta kontratuak berak ez baitziren argitaratu. Gainera, 2. espedientean ez ziren argitaratu kontratazio-mahaiaaren aktak, ez eta lizitazio-iragarkien estekak ere. 4. espedientean ez ziren argitaratu onartutako aldaketak, ezta horien justifikazioa ere. Espediente horretan bertan, argitaratu beharreko hiru loteetako bat baino ez zen argitaratu EBAOn (A3 akatsa).
- Gazteak dinamizatzeko zerbitzua, 184.450 euroan esleitua, aldatu egin zen COVID krisiaren ondorioz, eta kontratazio-organoak ez zuen aldaketa onartu. Aldaketa horren ondorioz, zerbitzu emaileari ordaindu beharreko kopurua guztira 5.799 euroan murriztu zen. Gainera, ez zen urteko luzapena formalizatu, kontratuan 2020ko ekainean azkentzen zenerako aurreikusia (B akatsa).
- Kiroldégia handitzeko obra 7,3 milioi euroan esleitu zen, eta 2019an 144.864 euroren aldaketa egin zitzaión, Gobernu Batzordearen erabakiz. Ordea, Udalbatza da horretarako organo eskuduna. Gainera, kontratuaren egikaritzak 5 hilabetez gainditu zuen kontratuetan ezarritako epea, eta ez zen haren exekuzioaren luzapenik edo etendurarik izapidetu. Azkenik, baldintza-agiriak kontratuaren % 20ra arteko aldaketak aurreikusten zituen, balio zenbatetsia kalkulatzean kontuan hartu beharrekoak (B akatsa).



Alderdi orokorrak

- Aztertu ditugun kontratuetaik lehenengoan izan ezik, Udalak proporcionaltasun simpleko formula bat baliatu zuen, eta horrek murritzutegi prezio faktorearen egiazko balioa, lizitazio prezioa berdintzen zuten eskaintzei puntuak emanet.
- Udalak ez zuen justifikatu aztertutako expedienteetan egindako adjudikazio-irizpideen hautaketa.

Beste erosketa batzuk

- Udalak 414.862 euroen kostua izan zuten 12 kontratu erosketa txiki modura izapidetu zituen, prozedura ireki bidez izapidetu beharrean; SPKLren 159.6 artikuluak xedatzen duen prozedura ireki simplifikatua ere balia zezakeen. Oñatiko Ur Jauziak udal sozietateak ez-betetze bera egin zuen 38.877 euroen kostua izan zuen kontratu batean (ikus A.11).
- Udalak ez zuen argitaratu Udaleko langileen bizi-aseguruen polizaren formalizazioa, GFAREN esparru-akordiotik eratorritakoa.

III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK

- Arantzazu Gaur fundazioari 2020ko ekitaldian jarduerak eta inbertsioak finantzatu ahal izateko emandako 60.000 euroen dirulaguntza izenduna nahitaezkoa den hitzarmen bitartez arautu behar zatekeen edo obligazioak emakida ebazpenean xehetasunez jaso.
- Udalak kontuen auditoretzaren bidezko justifikazio-modalitatea erabili zuen 2 dirulaguntza izendun nagusietan, 233.976 euroen guztizko zenbateko egin zutenetan. Justifikazio-prozesua 2022ra atzeratu da, dirulaguntza urte naturalari baitagokio eta kontuak ikasturteei baitagozkie. Komeniko litzateke justifikazio-prozesua simplifikatzea, diruz lagundutako jardueraren denbora-eremua arautzea eta ordainketak egiteko baldintzak zehaztea. Musika Eskolaren kasuan, 2018ko hitzarmen arautzaileak 5 urteko indarraldia ezartzen zuen, eta, beraz, Udalbatzak onartu behar zuen.
- 15 landa-auzoetako jardueretarako laguntzak 94.961 eurorenak izan ziren 2020an. Expediente horietako 2 aztertu ondoren, egiaztatua da justifikazioa amaitu aurretik ordaindu zirela laguntzak, eta honenbestez, ez dira bete azken % 50a ordaintzeko baldintza hori eskatzen duten hitzarmen arautzaileak.
- 2020an 70.782 euro eman zitzaiak Mankomunitateari, zabortegi bat ixteko kostuei aurre egiteko funts berezi bat hornitzeko. Udalbatzak onartutako Mankomunitatearen Estatutuek ez dute aurreikusten era horretako ekarpenik, onarpen espezifikoa beharko bailukete.

III.5 BESTE ALDERDI BATZUK

- Gardentasun-araudia behar bezala betetzeko, Udalak webgunean honako hauei buruzko informazioa argitaratu beharko luke: onorio juridikoak dituzten udal-organoen



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Pùblicas

erabakiak eta ebazenak, zinegotzien ordainsariak eta ondasunen eta jardueren adierazpenak, eta langileen absentziari buruzko estatistikak. Gainera, 3 udal sozietateek ez dute web orrirk, eta Udalaren webguneak ere ez du haien jarduerei buruzko informazioak jasotzen. Azkenik, udal-laguntzak jasotzen dituzten elkarrekin gardentasun-araudiaren betebeharra betetzen dituztela egiaztatu beharko litzateke, batez ere aurrekontuei eta urteko kontuei dagokienez.

- Berebat, Udalak ez du hirigintzako hitzarmenen nahitaezko erregistroa mantentzen.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera honako taula honetan dago zehaztua:

FINANTZAREN ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2018 (*)	2019 (*)	2020	2018 (*)	2019 (*)	2020
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	7.287	7.213	6.579	643	634	572
Transferentzia eta dirulaguntza kor. (4. kap.).....	8.943	8.869	8.251	789	779	718
Ondare sarrerak (5. kap.).....	1.281	1.212	1.055	113	107	92
A. Sarrera korronteak	17.511	17.294	15.885	1.545	1.520	1.382
Personaleko gastuak (1. kap.)	5.348	5.609	5.521	472	493	480
Ondasun korronteen erosketa eta zerbitzuak (2. kap.)	5.320	5.506	4.680	469	484	407
Transferentzia eta dirulaguntza kor. (4. kap.).....	3.476	3.209	3.482	307	282	303
B. Funtzionamendu-gastuak	14.144	14.324	13.683	1.248	1.259	1.190
Aurrezki gordina (A-B)	3.367	2.970	2.202	297	261	192
- Gastu finantzarioak (3. kap.).....	(10)	(6)	(7)	(1)	(1)	(1)
Emaitzia korrontea	3.357	2.964	2.195	296	260	191
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	(332)	(337)	(1.037)	(29)	(29)	(90)
Aurrezki garbia	3.025	2.627	1.158	267	231	101
Inbertsioen besterentzea (6. kap.)	927	22	-	82	2	-
Jasotako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.)	282	240	608	25	21	53
- Inbertsio errealkat (6. kap.)	(2.174)	(4.474)	(6.589)	(192)	(393)	(573)
- Emandako kapital-dirulaguntzak (7. kap.).....	(298)	(123)	(180)	(26)	(11)	(16)
Kapitalezko eragiketen emaitza	(1.263)	(4.335)	(6.161)	(111)	(381)	(536)
Eragik. ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.)	2.094	(1.371)	(3.966)	185	(121)	(345)
Diruzaintza-geldikin likidoa	3.482	13.022	7.980	307	1.144	694
GODG (1,8 milioi 2017.12.31n)	3.482	13.022	7.980	307	1.144	694
Zorpetza 12.31n	641	11.304	10.267	57	993	893

(*) Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera korronteak: % 9,3 egin dute behera 2018ko urtearen aldean.

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** % 9,7 behera egiteak hainbat osagai ditu, eta nabarmentzekoak dira EIOZren eta kirodegiko tasen murrizketak, jarduera txikiagoagatik, osasun-krisiaren ondorioz instalazioak ixteagatik eta berritze-obrengatik.
- **Transferentziak eta dirulaguntzak:** osagai nagusia, itunpeko zergetan partaidetza, alegia, % 6,6 murritzua da, COVID 19aren krisiak diru-bilketan izan duen eraginaren ondorioz, eta horixe izan da, hain zuzen ere, sarrera horiek % 7,7 murritzua izanaren arrazoi nagusia.



Funtzionamendu-gastuak: 2018 eta 2020 bitartean % 3,3 egin dute behera, honako xehapen honekin:

- **Langile-gastuek** % 3,2 egin dute gora, 2019ko % 2,8ko eta 2020ko % 2ko soldatu igoeren ondorioz, eta aldi baterako lan-kontratupeko langile gehiago kontratatu izanaren ondorioz. Gizarte Segurantzako kotizazioek % 8,8 egin dute gora, gehieneko kotizazio-oinarriak igo izanaren ondorioz eta 2019ko urtarrilaz geroztik udaltzaingoari ezarritako errekgarguaren ondorioz. Bestalde, 2018an 124.752 euro ordaindu ziren erretiro aurreratuagatiko kalte-ordinen ordainketa puntuala egin izanaren ondorioz.
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak** % 12 murriztu ziren, eguneko zentroko zerbitzua GFARI transferitu zitzaiolako eta osasun-krisiaren ondorioz kostuak murriztu zirelako, batez ere jarduera soziokulturaletan eta jaietan.
- **Transferentzietako eta dirulaguntzetako gastuak** egonkor dirau. Sustapen ekonomikoan diharduen udal-sozietatea udalean sartzeak murriztu egin ditu transferentziak, baina 2020an berariazko laguntzak onartu ziren kontsumoa sustatzeko eta tokiko merkataritzasektoreari laguntzeko, COVID-19aren krisiaren ondorioz.

Aurrezki gordina, garbia eta zorpetzea: eragiketa korronteek diru-sarrera arrunten % 18,2ko batez besteko aurrezki gordina eragin zuten 2018an eta 2019an. Finantza-karga handitu egin zen 2020an, aurreko urtean zorpetzea erabili zelako, eta horrek diru-sarrera arrunten % 6,6 kontsumitu baitzuen; ekitaldiko aurrezki garbia 1,2 milioi euro izan zen. 2019an 15 urterako 2 mailegu kontratatu ziren, guztira 11 milioi eurorenak, eta 2020ko abenduaren 31n zorpetzea diru-sarrera arrunten % 64,6 zen.

Kapital-eragiketen emaitza: Hirurtekoan 13,2 milioi euroren inbertsioak egin ziren eta azpimarratzekoak dira, kirolegia zaharberritzeko erabilitako 5,6 milioi euroak. Azken obra horren ondorioz, kapital-eragiketek hirurtekoko diru-sarrera korronteen % 27,3 egin dute, eta mailegu berriekin finantzatu dira, eta, neurri txikiagoan (% 15), kapital-dirulaguntzakin eta aktiboak besterentzeagatiko diru-sarrerekinekin.

Gastu Orokorrerako Diruzaintza geldikina: 6,2 milioi euro egin du gora 2017ko abenduaren 31n zegoenak, izan ere zorpetze-bidea baliatu baita eta aurrezkia sortu baita; horiek hirurtekoko kapital-eragiketak finantzatu dituzte. 2020ko abenduaren 31n GODG 8 milioi euro izan da, ekitaldi horretako sarrera korronteen % 50en pareko, eta data horretan inbertsio-konpromisoak 3,2 milioi eurorenak izan dira.

Ondorioa: COVID-19aren krisiak diru-sarrera korronteetan izan duen eraginak zigortu egin du eragiketa korronteetan eskuratutako aurrezki-maila, diru-sarrerak gastu arruntak baino gehiago murriztu baitira; honela, bada, aurrezki gordina 2020ko sarrera korronteen % 13,9 izan da. Zorpetzea eta geldikinak baliatzeari dagokionez, 2020ko abenduaren 31ko GODGk,



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

inbertsio-konpromisoak kenduta, 4,8 milioi eurorena zen, eta zorpetzea 10,3 milioi eurorena zen data horretan, diru-sarrera korronteen % 64,6.

Aurrekontuaren egonkortasuna: Udaleko Kontuhartzaitzaren txostenak adierazi du osasun krisiaren ondorioz eten egin zirela 2020rako finkatutako helburuak. Hala eta guztiz ere, Likidazioaren egoera aztertu du eta ondorioztatu du 4 milioiko defizita dagoela eragiketa ez-finantzarioetan, nahiz justifikatzen den Geldikina baliatu dela 7 milioi euroan. Azken gertaera horrek ere justifikatzen du gastu ez-finantzario konputagarriek % 11 gora egitea, 2019koekin alderatuta, igoera-muga % 2,8 izatea ezarri baitzen. Zorpetzeari dagokionez, 2020. urtearen hasieran zehaztutako % 70eko muga bete zen. Udal-sozietateei dagokienez, bi-biek etekinak izan zituzten.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2020KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

DIRU-SARRERAK	AURREKONTUA				ESKUB.	KOBR.	% EGIK.
	ERANSK.	HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.			
1. Zerga zuzenak.....	A.3	3.944	-	3.944	4.092	3.988	104 % 104
2. Zeharkako zergak	A.3	230	-	230	171	163	8 % 74
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	2.278	-	2.278	2.316	2.001	315 % 102
4. Transferentzia korronteak	A.4	8.780	-	8.780	8.251	7.777	474 % 94
5. Ondare-sarrerak	A.4	1.140	-	1.140	1.055	227	828 % 93
7. Kapitalezko transferentziak	A.4	383	37	420	608	594	14 % 145
8. Aktibo finantzarioak	-	28	11.246	11.274	5	1	4 (*) % 18
9. Pasibo finantzarioak	-	427	-	427	-	-	-
SARRERAK, GUZTIRA	17.210	11.283	28.493	16.498	14.751	1.747	(*) % 96

(*) Exekuzioaren % kalkulatzerakoan Diruzaintza geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

								Euroak milakotan
GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.	%	
		HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.	AITORT.	ORDAINK.	GABEA	EGIK
1. Pertsonaleko gastuak.....	A.5	5.898	60	5.958	5.521	5.521	-	% 93
2. Ondasun korronte eta zerb. kontrat. ...	A.6	5.750	314	6.064	4.680	4.133	547	% 77
3. Gastu finantzarioak	-	53	-	53	7	7	-	% 13
4. Transferentzia korronteak	A.7	3.394	617	4.011	3.482	3.147	335	% 87
6. Inbertsio errealkak.....	A.6	1.786	9.371	11.157	6.589	5.256	1.333	% 59
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.7	50	135	185	180	134	46	% 97
8. Aktibo finantzarioak	-	28	-	28	6	6	-	% 21
9. Pasibo finantzarioak	A.8	251	786	1.037	1.037	1.036	1	% 100
GASTUAK, GUZTIRA		17.210	11.283	28.493	21.502	19.240	2.262	% 75
SARRERAK - GASTUAK						(5.004)		

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA			Euroak milakotan		
	HASIERAKO	KOBR./	AZKEN		
	ERANSK.	ZORRA	BALIOG.	ORDAINK.	ZORRA
Kobratzeko dauden saldoak	A.8	1.674	(18)	1.348	308
Ordaintzeko dauden saldoak		1.652	-	1.652	-
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA				(18)	



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	16.498
Obligazio aitortuak	(21.502)
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	(5.004)
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	(18)
EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA	(5.022)
Finantzaketako desbideratzeak	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	7.016
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	1.994

DIRUZAINTEZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikin likidoa 21.1.1ean.....	13.243
Ekitaldiaren aurrekontuko emaitza.....	(5.022)
DIRUZAINTEZA-GELDIKINA 20.12.31-N	8.221
Diruzaintzako funts likidoak	9.047
Sarreren aurrekontuko zordunak (A.8).....	2.055
Aurrekontuz kanpoko zordunak	13
Gastu-aurrekontuaren hartzekodunak	(2.262)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....	(632)
DIRUZAINTEZA GELDIKINA 20.12.31N	8.221
Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak	(241)
GODG 20/12/31N	7.980
ZORPETZEA 20.12.31n	10.267



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BALANTZEAK 2020 ETA 2019KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSK.	2020	2019	ONDARE GARB. ETA PASIB.	ERANSK.	2020	2019
AKTIBO EZ-KORRONTA		119.557	99.010	ONDARE GARBIA		117.020	100.479
Ibilgetu ukiezina	A.9	905	997	Ondarea	A.9	121.931	105.364
Ibilgetu materiala	A.9	112.254	91.544	Aurreko ekitaldietako emaitzak	-	(5.575)	(4.296)
Lurraren Ondare Publikoa	A.9	620	691	Ekitaldiaren emaitza	-	(621)	(1.279)
Finantza inbertsioak epe luzera	A.9	5.778	5.778	Jasotako dirulag., egozteko zain	-	1.285	690
				PASIBO EZ-KORRONTA		10.259	11.052
				Kreditu entitateekiko e/luz. zorrak	A.8	10.259	11.052
AKTIBO KORRONTA		10.624	15.062	PASIBO KORRONTA		2.902	2.541
Zord. eta kopr. bst knt b.....	A.8	995	592	Kred. erakun. epe luz. zorrak	-	8	251
Finantza inberts. epe laburrera	A.8	561	595	Beste zor batzuk	-	2.242	1.642
Epe motz. finantza inbertsioak	A.8	21	25	Hartzek. eta ordain. bst kontu b.	-	652	648
Eskud. eta bst. aktibo likido batzuk	-	9.047	13.850				
GUZTIRA		130.181	114.072	GUZTIRA		130.181	114.072

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA 2020 ETA 2019

Euroak milakotan

	2020	2019
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak	6.239	6.621
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	8.265	8.998
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa	57	56
Kudeaketa korronteko beste sarrera b.	318	426
KUDEAKETA KORRANTEKO SARRERAK GUZTIRA	14.879	16.101
Pertsonaleko gastuak.....	(5.540)	(5.620)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	(3.663)	(3.332)
Kudeaketa korronteko bst gstu batz.....	(4.661)	(5.494)
Ibilgetua amortizatzea	(2.611)	(4.136)
KUDEAKETA KORRANTEKO GASTUAK GUZTIRA	(16.475)	(18.582)
KUDEAKETA KORRANTEAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	(1.596)	(2.481)
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZAK	(1.596)	(2.481)
Sarrera finantzarioak	1.002	1.066
Gastu finantzarioak	(7)	(6)
Balioaren narriadura, bajak eta finantz-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(20)	142
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	975	1.202
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	(621)	(1.279)



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 SAN MARTIN EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOA

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

	AURREKONTUA			ESKUB.	KOBR.	Euroak milakotan %	
DIRU-SARRERAK	HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.	AITOR.	KOBR.	GABEA	EGIK.
3.-Tasak eta bestelako sarrerak	2	-	2	2	2	-	% 100
4.- Transferentziak eta dirulaguntza arruntak.....	-	1	1	8	8	-	% 800
SARRERAK, GUZTIRA	2	1	3	10	10	-	% 333

Euroak milakotan

	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.	Euroak milakotan %	
GASTUAK	HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.	AITORT.	ORDAINK.	GABEA	EGIK.
2. Ondasun korronte eta zerbitz. kontrat.....	2	1	3	3	3	-	% 100
GASTUAK, GUZTIRA	2	1	3	3	3	-	% 100

AURREKONTUAREN EMAITZA 2020

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak	10
Obligazio aitortuak	(3)
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	7

DIRUZAINIZA GELDIKINA

Euroak milakotan

Diruzaintzako funts likidoak	405
DIRUZAINIZA GELDIKIN GORDINA = GODG 20/12/31N	405

BALANTZEAK 2020 ETA 2019KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	2020	2019		2020	2019
AKTIBO EZ-KORRONTEA	-	2.908	ONDARE GARBIA	405	3.306
Ibilgetu materiala	-	2.908	Ondarea	2.182	2.182
			Aurreko ekitaldietako emaitzak	1.124	1.310
AKTIBO KORRONTEA	405	398	Ekitaldiaren emaitzak	(2.901)	(186)
Eskudirua eta bestelako aktibo baliokideak	405	398			
GUZTIRA	405	3.306	GUZTIRA	405	3.306

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA 2020 ETA 2019

Euroak milakotan

	2020	2019
KUDEAKETA KORRANTEKO SARRERAK GUZTIRA	2	115
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	(2.901)	-
Kudeaketa korronteko bst gstu batz.....	(2)	(202)
Ibilgetua amortizatzea	-	(80)
KUDEAKETA KORRANTEKO GASTUAK GUZTIRA	(2.903)	(282)
KUDEAKETA KORRANTEAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	(2.901)	(167)
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZA	-	1
EKITALDIAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	(2.901)	(166)



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Pùblicas

V.3 UDAL SOZIETATEAK

EGOERAREN BALANTZEA 2020KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	MERKAONA	ONARGI	UR JAUZIAK
AKTIBO EZ-KORRONTEA	12	5.621	3.552
Ibilgetu ukiezina.....	-	111	-
Ibilgetu materiala (A.10).....	-	5.510	552
Taldeko entitateetan epe luzeko finantza inbertsioak (A.8).....	-	-	3.000
Epe luzeko inbertsio finantzarioak.....	12	-	-
AKTIBO KORRONTEA	70	1.216	542
Izakinak.....	-	27	-
Merkataritzako zordunak eta kobrazt. kontuak	17	131	105
Eskud. eta beste aktibo likido baliokide batz.....	53	1.058	437
AKTIBOA	82	6.837	4.094
ONDARE GARBIA	77	3.636	3.952
Funts propioak.....	77	2.978	3.952
Kapitala.....	30	30	2.989
Jaulkipen prima.....	-	-	146
Erreserbak	55	2.792	762
Aurreko ekitaldietako emaitzak	(7)	-	-
Ekitaldiaren emaitza	(1)	156	55
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak	-	658	-
PASIBO EZ-KORRONTEA	-	1.888	-
Epe luzeko zorrak.....	-	1.724	-
Gerorat. zergarengatiko pasiboak	-	164	-
PASIBO KORRONTEA	5	1.313	142
Epe laburreko horridurak	-	114	-
Epe lab. zorrak	-	204	-
Merkat. hartzekod. eta kobrazt. beste knt. b.....	5	995	142
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	82	6.837	4.094

2020KO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	MERKAONA	ONARGI	UR JAUZIAK
Negozio zifratik zenbateko garbia (A.10).....	53	1.619	395
Horridurak	-	(6)	-
Langile gastuak (A.10).....	(48)	(174)	(193)
Bestelako ustiajeta gastuak (A.10).....	(6)	(1.095)	(142)
Ibilgetuaren 2020ko amortizatzea.....	-	(249)	(61)
Jasotako dirulaguntzak 2020an egoztea	-	25	-
Partaidetza-kontuko saldoa 2020an egoztea (A.10).....	-	67	1
Horridura soberakinak	-	-	64
USTIAPENAREN EMAITZA	(1)	187	64
EMAITZA FINANTZARIOA	-	-	3
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(1)	187	67
Mozkinen gaineko zerga	-	(31)	(12)
EKITALDIAREN EMAITZA	(1)	156	55

Eranskina

Anexo





ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION LEGERIA

Oñatiko Udala Administrazioko toki entitatea da, oinarrizko ezaugarriean Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena.

Arautegi horrek udalek ematen dituzten eskumenak edo zerbitzu publikoak definitzen dituzte, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeo zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina, kultura- eta kirol-jarduerak.

Zerbitzu horiek nagusiki honako hauen bidez finantzatzen dira: zerga, tasa eta prezio publikoak, zerga itunduetan parte-hartzeagatiko sarrerak, ondare-sarrerak, dirulaguntzak eta kreditu-eragiketak.

Ekitaldian ezargarria den aurrekontuko eta kontularitzako araudi nagusia 21/2003 Foru Arauak jasotzen du, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, eta 86/2015 Foru Dekretuak, Gipuzkoako toki entitateen kontularitzako araudi-esparria onartzen duenak.

A.2 AURREKONTUA ETA ALDAKETAK

Hona hemen, 2020ko aurrekontu-aldaaketak kapituluak xehakaturik:

KAPITULUAK	Kreditu txertaketa	Kreditu gehigar.	Kreditu gaikuntza	Euroak milakotan GUZTIRA
7. Kapitalezko transferentziak eta dirulagun.	-	-	37	37
8. Aktibo finantzarioen bariazioa: Geldikina.....	8.314	2.932	-	11.246
SARRERAK, GUZTIRA	8.314	2.932	37	11.283
1. Pertsonaleko gastuak.....	-	60	-	60
2. Ondasun korronteko eta zerbitz. gastuak	-	314	-	314
4. Transferentzia korronteak	-	617	-	617
6. Inbertsio errealak.....	8.314	1.057	-	9.371
7. Kapitalezko transferentziak eta dirulagun.	-	98	37	135
9. Pasibo finantzarioak.....	-	786	-	786
GASTUAK, GUZTIRA	8.314	2.932	37	11.283

Onartutako 6 aldaketa-espedienteek gastuen hasierako aurrekontua % 65,6 gehitu dute.

2020ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2021eko otsailaren 25eko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2021eko uztailaren 22ko Udalbatza bitartez.



A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen Likidazioaren lehenengo 3 kapituluek izandako diru-sarrerak:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Sarrera
Ondasun higiezinen gaineko zerga	2.379
Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga.....	902
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.....	557
Hiri izaerako lursailen balioaren gaineko zergaren igoera	254
ZERGA ZUZENAK, GUZTIRA	4.092
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga	171
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	171
HHSen bilketa.....	849
Hilerria	17
Kiroldegia - kirol-elkarteen eta ikastetxeen erabilera (A.7).....	186
Kiroldegia - zerbitzuaren prezio publikoaren sarrerak.....	145
Etxerako laguntza zerb. eta beste gizarte-zerb. batzuk	98
Hirigintzako eta establezimenduak irekitzeko lizenziak	34
Jabari publikoaren okupazioa merkatuetan	16
Aldamioek, terrazek, pasabideek, kioskoek, kutxazainek etab. jabari publ. okup.....	42
Enpresa hornitzaleek lurra, lurpea eta hegala okupatzea 2016-2019	164
Enpresa hornitzaleek lurra, lurpea eta hegala okupatzea 2020	292
Jabari publikoa okupatzea ibilgailuen sarrera eta aparkaleku-erresegabagatik	101
Aurreko ekitaldietako itzulketak	79
Isunak	51
Premiamendu eta berandutza interesen errekgarua	13
Telefonia enpresak	50
Udal-aldirizkian publizitatea, eguzki-plaken energia eta bestel. diru-sarrera txikiak.....	179
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	2.316
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	6.579

JEZaren probintziako eta estatuko kuotak GFAk kudeatzen eta biltzen ditu, eta urteko likidazioak egiten ditu udalei ordaintzeko. 2020koa 2021eko otsailean onartu zen, eta Udalari 66.801 euro egokitutu zitzaizkion, 2021eko diru-sarrera gisa aitortu zirenak.

HHSaren bilketa-tasa hiru hilean behin likidatzen da, eta 2021ean 2020ko laugarren hiruhilekoko diru-sarrerak aitortu dira, 212.284 euro guztira; izan ere, Gipuzkoako Uren Kontsortzioak 2021eko otsailean jakinarazi zituen tasaren biltzaile gisa emandako zerbitzuen emaitzak.

Udalak uraren hornidura eta saneamendurako udal-zerbitzua 10 urterako transferitu zion 2018an Gipuzkoako Uren Kontsortzioari, eta 866.154 euro eskuratu zituen; diru-sarrera hori urteko diru-sarrera gisa erregistratu zuen, diru-sarrera sortzen den 10 ekitaldiei egotzi beharrean. 2020ko abenduaren 31n, sortzeke dagoen diru-sarrera aurreratua 692.923 euro izango lirateke. Gainera, hitzarmena indarrean zegoen bitartean, Gipuzkoako Uren Kontsortzioak 2,9 milioi euroren inbertsioak egiteko konpromisoa hartu zuen.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hauek dira transferentziek eta dirulaguntza kapitalezkoek eta korronteek eragindako sarreren xehetasunak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	Zenbat.
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA		
UFFF-zerga itunduetan partaidetza:2020ko aurrerakinak	6.943	
UFFF-Itunpeko zergetan partaidetza: 2020ko likidazioa 2021eko otsailean	474	
Etxez etxeko lagun. zerb. 2019ko bigarren seihibekoan eta 2020an irailaren 30era arte.....	275	
2020ko funtsa, gizarte zerbitzuen mapa garatzea	42	
Herribideak	39	
Eskola-kirola	32	
Itundu gabeko zergak, berdintas., musikegunak, herritarren parte-hartzea eta beste	107	
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA		
Udal euskaltegia 2019-20 ikasturtea	126	
Udal euskaltegia 2020-21 ikasturtea	13	
GLL 2020 eta 2019ko osagarria (14.666 euro)	101	
Immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko ekintzetarako laguntzak	27	
Beste laguntza batzuk	53	
BESTE BATZUK		
Mankomunitatea: enplegua sustatzea	19	
4. KAPITULUA GUZTIRA	8.251	
EAE: Natur eskola birgaitzea, eskoletako inbertsioak, garapen iraunkorra eta beste	145	
GFA: kiroldegia eraberritzea	354	
GFA: merkat.-sektorean eta Araotz eskolan COVID 19ko inbertsioak	41	
Beste batzuk: Geotermiarako eta saneamendua berritzeko laguntzak	68	
7. KAPITULUA GUZTIRA	608	

Etxez etxeko udal laguntza-zerbitzuari emandako foru-dirulaguntza hiru hilean behin ordaintzen da, emandako zerbitzuen datu errealkak hartuta; GFAk 2021eko otsailean jakinarazi zuen 2020ko 4. hiruhilekoari zegokion zenbatekoa 51.660 eurokoa dela. GLLren dirulaguntzen erregulazioak ordainketa osagarri bat egitea aurreikusten du aurreikusitakoa baino gastu-maila handiagoa duten toki-erakundeei, eta honenbestez, 25.762 euro dagozkio Udalari, 2021eko irailean onartutako ebazpenaren arabera. Zenbateko biak 2021eko diru-sarrera gisa aitortu zituen Udalak.

EEAk 147.000 euroren dirulaguntza eman zuen 2018ko irailean Araotzko eskola zaharra eraberritzeko, baina ez zen diru-sarrera gisa aitortu 2021ean kobraatu arte. Era berean, auzokoek elkarteko obrak finantzatu zituen 2021ean obrak amaitzean likidatu beharreko ekarpenekin. Obraren 2020ko abenduaren 31ra arteko egikaritza kontuan hartuta, Udalak 105.677 eta 57.152 euroren diru-sarrerak sortu zituen dirulaguntzengatik eta ekarpenengatik, hurrenez hurren.

Ondare-sarrerak

Hona hemen 2020ko ekitaldian, kapitulu honetako diru-sarrerak zein izan diren:



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	Zenbat.
Oñargi S.L. udal-sozietateko diru-sarreretan partaidetza (A.10).....	823
Ur-Jauziak, S.A. udal sozietatearen 2019ko dibidenduak	170
Musika Eskola lokalaren alokairua	34
Lokalen alokairua.....	27
Interesak	1
5. KAPITULUA GUZTIRA	1.055

A.5 PERTSONALEKO GASTUAK

Gastu-kapitulu hau era honetara xehakatzen da:

	Miles de euros		
	LANPOSTU KOP.	Plantilla	Gastua
KONTZEPTUA			20.12.31
Korporaziokideak (alkatea eta 4 zinegotzi)	124	-	5
Funtzionarioak.....	2.659	68	(*) 67
Lan kontratu finkoko langileak	710	35	20
Aldi baterako lan-kontratuko langileak	708	-	(**) 22
Ordainsarien guztizko partziala	4.201	103	114
Gizarte Segurantzari kotizazioak.....	1.203		
Pentsio osagarrietarako ekarpenak: Elkarkidetza.....	71		
Aseguruak eta beste	46		
GUZTIRA	5.521		

(*) 27 bitarteko funtzionario barne hartzen ditu: 17 lanpostu hutsa betetzen, 1 titulararen ALE ordezten, 9 programako/lan metaketa.

(**) Kontratu mugagabe ez finko 1, lanpostu hutsa bete arte 10 bitarteko, obrako 4 kontratu, Lanbideko enplegu planeko 5 kontratu eta 2 txandakako.

Langileen ordainsariekin % 2 egin zuten gora, 2019an indarrean zeudenenean aldean.

Udalak Gizarte Segurantzaren lanerako ezintasun iragankor kontzeptuko prestazioak osatu zituen 2020an eta 42.417 euroren kostua eragin dute.

Altak

2020ko ekitaldian Udalak honako langile-kontratazio hauek gauzatu ditu:

	Kontratu kopurua
Bitarteko funtzionarioak (9 langile)	13
Lanpostu hutsa betetzea	1
Titularra aldi baterako ezintasunagatik eta eszendentziagatik ordeztea	2
Programa edo egitekoen metatzea	10
Aldi baterako lan kontratukoak (15 langile)	16
Bitarteko kontratua lanpostu hutsa bete arte	2
Obra kontratua.....	9
Lanbide-Enplegu Planeko kontratuak 2020-2021 (3 eta 4 hilabete).....	5
GUZTIRA	29



A.6 ONDASUN KORRONTEEN ETA ZERBITZU ETA INBERTSIOEN KONTRATAZIOA

Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontrataazioak honako xehakapen hau du:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	Gastua	D-O (*)
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	383	-	
Azpiegiturak	172	-	
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	118	-	
Makineria, instalakuntzak eta ibilgailuak	93	-	
Bulegoko materiala	48	-	
Hornidurak	517	-	
Energia elektrikoa	335	-	
Ura	43	-	
Erregaiak	55	-	
Konponketa-materialak, seinaleztapena, ura eta bestelako hornidurak	84	-	
Komunikazioak, tributuak eta garraioak	52	-	
Aseguru-primak	56	-	
Askotariko gastuak	758	-	
Publizitatea eta propaganda	93	-	
Gastu juridikoak	17	-	
Jarduera soziokulturalak	37	-	
Turismoaren sustapena	186	-	
Bestelako hainbat gastu	425	-	
Kanpoko enpresek egindako lanak	2.847	7	
Adinekoentzat etxez etxeko laguntha zerbitzua	768	-	
Udal aretoen garbiketa	350	-	
Berdegunen mantentze-lana	289	-	
Haur eta gazteentzako zerbitzua (Gazteleku)	183	-	
Ludoteka zerbitzua eta Txipistin zerbitzua, haur eta gazte etorkinen integradorako	152	-	
Hiri-garraio zerbitzua	127	-	
Natur eskola zerbitzua	102	-	
Beste txiki batzuk	876	7	
Mugikortasunaren eta lekualdatzeen dietak	4	-	
6 zinegotziaren dietak, organo kolektiboen bileretara joateagatik	15	-	
GUZTIRA	4.680	7	

(*) 2020ko abenduaren 31n konprometitutako kredituak.

Udalak 2021eko aurrekontura jasanarazi zituen 2020ko gastuak, ekitaldi horretan aitortu gabeko 65.548 eurorenak.



Inbertsioak

Hona hemen egindako inbertsioen xehakapena:

	Euroak milakotan	
DESKRIBAPENA	Gastua	D-O (*)
Olakua auzoko 2. areako irisgarritasun-obrak eta saneamendua berritza.....	178	8
Auzoetan inbertsioak: bideak, aparkalekuak eta bestelakoak egokitza	169	-
